

GENERO INDARKERIA

Emakume atzerritarrentzako
gida

Definizioak

Biktimeen eskubideak

Bizkaiako baliabideak

Fundación 
Fondo Forakción



Finantzatuta

AURKIBIDEA

- 1** Sarrera
- 2** Zer da genero indarkeria?
- 3** Indarkeriaren zikloa
- 4** Nola adierazten da eraso
- 5** Genero indarkeriaren biktima zara, baldin eta....
- 6** Badituzu eskubideak
- 7** Eskatu laguntza

Zu edo zure seme-alabak arriskuan bazaudete
Medikuaren laguntza behar izanez gero
Ez baduzu ostatu non artu
Besteren kontura lan egiten baduzu
Baliabide ekonomikorik ez baduzu
Erasotzailea salatzeke asmoa baduzu
- 13** Egoera irregularrean bazaude ere, badituzu eskubideak
- 14** Gogoetarako
- 15** Bizkaiako helbide eta telefono zenbakiak

Genero Indarkeriari buruzko Gida honen helburua da genero indarkeria jasaten duten edo jasan dezaketen **emakumeei informazioa ematea**, indarkeria mota hori zer modutara agertzen den ezagutu dezaten eta orobat jakin dezaten zer **eskubide** dituzten eta zer **baliabidetara** jo dezaketen

Genero indarkeriaren arazoa ez dagokie soilik gure kulturatik kanpoko emakumezko eta gizonezkoiei; baina **hainbat faktore** direla-eta, **emakume atzerritarrek** genero indarkeriaren biktima izateko arrisku handiagoa dute: emakumearen egoera administratiboa, emakume eta gizon etorkinen jatorrizko herrialde batzuetako gizartean eta erakundeetan jarrera horiek gutxiago baztertzea, erasotzaileari buruzko mendekotasun emozionala eta ekonomikoa, migrazio duelua, familiaren edo gizartearen ingurunearen babesik eza, estatuko legeei buruzko ezjakintasuna, etab.

Gida honetako edukiaren bitartez saiatuko gara **emakume etorkinei** gai honetan adituak diren guztien iritziz genero indarkeriaren **seinaleak identifikatzeko** ezagutzak ematen, modu berezian azpimarratuz emakumeek bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik jasaten duten indarkeria

Beren burua genero indarkeriaren biktimatzat ikusten duten emakumeek, **beren egoera edozein dela ere, dagozkien eskubideei** buruzko informazioa aurkituko dute, eta baita **Bizkaian** zer baliabide publikotara jo eta zer laguntza eskatu behar duten ere

ZER DA GENERO INDARKERIA?

EMAKUMEAK NAGUSITASUN ETA KONTROL HARREMAN baten mende jartzeko helburuarekin **EMAKUMEEN KONTRA** egiten den **INDARKERIA MOTA**

GENERO INDARKERIAN erasotzailea **MUTIL-LAGUNA, EMAKUMEAREKIN BIZI DEN BIKOTEKIDEA** (ezkontza harremanarekin edo halakorik gabe) edo **BIKOTEKIDE OHIA** izan liteke


Genero Indarkeria **DELITU** bat da, bai **EREMU PRIBATUAN** gertatzen denean, bai **EREMU PUBLIKOAN** gertatzen denean

Gizon batek **HAINBAT ARRAZOIRENGATIK** jarduten du indarkeria fisiko edo psikologikoaren bitartez emakumeen kontra, baina **ARRAZOI HORIETAKO BAKAR BATEK ERE EZ DITU TRATU TXARRAK JUSTIFIKATZEN**

Alkohola, drogak edo egun txar bat **EZ DIRA ARRAZOA**

Genero Indarkeria **ERA ZIKLIKOAN, BEHIN ETA BERRIZ** eta **NAHITA** egiten da. **HIRU FASE DITU**, eta **ETENGABE** errepika daitezke

INDARKERIAREN ZIKLOA



LEHENENGO FASEAN, erasotzaileak **modu oldarkorrean** erantzuten die gorabehera txikiei, **hitzezko erasoen** edo **eraso fisiko arinen** eta **isolatuen bitartez** (gutxiespenak, irainak, etab.)

BIGARREN FASEAN erasotzaileak lehenengo fasean pilatutako tentsioa kanporatzen du. Emakumeak jasaten ditu **ondorio gogorrenak**, fisikoak zein psikologikoak. **Emakumea** gizonezkoaren **jokabide oldarkorraren erantzule sentitzea** lortzen du erasotzaileak

HIRUGARREN FASEAN erasotzaileak errua aitortu ohi du eta barkamena eskatzen du. Bikotekidea afektiboki manipulatu du, utz ez dezan; **opariak egiten dizkio**, eta baita **berrito gertatuko ez den promesa ere**

Ohikoa da denboraren joanean ekintza oldarkorrek sendotzea eta gero eta maizago gertatzea, ADISKIDETZEaren fasea, "EZTIALDIA" izenez ezagutzen dena, desagertzeraino

NOLA ADIERAZTEN DA ERASOA

INDARKERIA FISIKOA

Erasoek zauri fisikoak eragin ditzakete emakumeengan, muturrekoen, bultzaden, ostikoen, atximurren, hozkaden, erreduren, ebakien eta abarren ondorioz. Zenbaitetan, erasoak jaso duenaren heriotza ere eragin dezakete

INDARKERIA PSIKOLOGIKOA

Mehatxuak, irainak, gutxiespenak, debekuak, kontrola, isolamendua eta abar sartzen dira indarkeria psikologikoan

INDARKERIA EKONOMIKOA

Emazteari diru sarrerak ezkutatzea, gastuak justifikatzera behartzea, emakumeari lan egitea edo ikastea eragozteak, ondasun komunak ezin erabili izatea, garrantzizko gastuak emakumea kontuan hartu gabe erabakitzea, etab.

INDARKERIA SOZIALA

Emakumea kontrolatzea, haren jarduerak mugatzea, ordutegiak inposatzea, SMSak eta telefono deiak kontrolatzea, emakumearen objektuak haustea, etab.

INDARKERIA SEXUALA

Emakumea sexu harremanetara behartzea haren borondatearen kontra, emakumea zigortzea sexu harremanak onartzen ez baditu, etab.

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA ZARA, BALDIN ETA...

ZURE BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK

- ✘ Etengabe deitzen badizu telefonoz edo sms-ak bidaltzen badizkizu, zer egiten duzun edo non zauden jakiteko
- ✘ Irabazten duzun diruari eta zure gastuei buruzko kontuak eskatzen badizkizu
- ✘ Mehatxu egiten badizu esanez zure herrialdera bidaliko zaituela
- ✘ Zure lagunengandik, senideengandik, ikasketetatik edo jolasetatik urruntzen bazaitu
- ✘ Seme/alaben aurrean irrigarri uzten bazaitu
- ✘ Sexu harremanak edukitzera behartzen bazaitu, gogorik gabe ere
- ✘ Zuretzat bereziak diren gauzak botatzen edo hausten ditu
- ✘ Bultza edo jo egiten bazaitu, eta gero barkamena eskatzen badizu
- ✘ Garrasi eta irain egiten badizu, eta manipulatu egiten bazaitu
- ✘ Mehatxu egiten badizu esanez uzten baduzu bere buruari min egingo diola

HORREN GUZTIAREN ONDORIOZ

Lesioak, nahi gabeko haurdunaldiak, ondoez fisikoak, erditze goiztiarrak, antsietatea/depresioa, elikaduraren alorreko jokabide-gorabeherak, autoestimu baxua, errudun sentipena, izua, etab. dituzu.

BADITUZU ESKUBIDEAK

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak Genero Indarkeriaren biktima diren edo izan diren emakumeei hainbat eskubide bermatzen dizkie, haiek indarkeriazko harremanarekin amaitu dezaten eta beren bizi proiektua berreskura dezaten

ZER ESKUBIDE DITUZTE GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEK?

Informazioa edukitzeko eskubidea

Gizarte-laguntza osoa jasotzeko eskubidea

Berehala laguntza juridikoa edukitzeko eskubidea

Laguntza juridikoa doan edukitzeko eskubidea

(baldintzekin)

Lan eskubideak eta Gizarte Segurantzakoak

Eskubide ekonomikoak

ESKATU LAGUNTZA

Genero arrazoiengatik tratatu txar fisiko edo psikologikoak eta/edo sexu jazarpena jasaten duen edozein emakumek, **edozein dela ere haren jaioterria eta egoera administratiboa (paperekin edo gabe)** eskura ditu

**GENERO INDARKERIAREN ETA/EDO SEXU ERASOEN BIKTIMA
DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZEKO EUSKO JAURLARITZAREN
TELEFONO BIDEZKO ZERBITZUA**



900 840 111 edo **016**

24 orduz/365 egunez, 55 hizkuntzatan ematen du arreta

Profesional talde batek genero **indarkeriazko egoera baten aurrean jarduteko moduari buruzko aholkuak** ematen ditu, eta **emakumeak hurbil dituen baliabide guztiei buruzko informazioa** ematen du: gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzuak, judizialak, polizia, etab.

Doakoa da eta **ez du arrastorik uzten** telefonoaren fakturan

ZU EDO ZURE SEME-ALABAK ARRISKUAN BAZAUDETE



112 deitu eta **laguntza eskatu**

Doakoa da, edozein telefonotatik: mugikorra, finkoa edo kabina

MEDIKUAREN LAGUNTZA BEHAR IZANEZ GERO



Joan osasun zentro batera

Ez ezkutatu zein den zure zaurien jatorria

Osasun Txartel Indibiduala eduki gabe ere laguntza emango dizute

Sexu eraso bat jasan baduzu, mediku azterketaz gainera azterketa ginekologoa egingo dizute.

Gorde **medikuaren txostenaren kopia** bat, froga gisa eraman beharko duzu-eta salaketa jartzea erabakitzen baduzu

EZ BADUZU OSTATU NON HARTU



Gizarte zerbitzuek harrera zentroak/pisuak dituzte genero

indarkeriaren biktima diren emakumeentzat (berdin dio egoera
irregularrean zauden)

Bizkaian bi zentro daude **kokaleku publikoa ez dutenak**

Korrika irten bazara eta beharrezko gauzak hartu ez badituzu, **polizia batekin joateko eskubidea duzu. Saiatu dokumentazio guztia eskura edukitzen** (pasaportea, bizitzeko baimenaren sinestamendua, osasun txartela eta medikuen ziurtagiriak, kreditu txartelak, etab.)

BESTEREN KONTURA LAN EGITEN BADUZU

Genero indarkeriaren Biktima zarela **egiaztatzen baduzu** (Zigor Epai bidez, Babes Agindu bidez edo Fiskaltzaren Txostenaren bidez), **eskubidea duzu lanaldiaren murrizpena eskatzeko, lan denbora berrantolatzeko, zentroz aldatzeko postua gordetzen zaizula** lehenengo 6 hilabeteetan, **lan harremana eteteko** lanpostua gordetzeko eta langabezia saria jasotzeko eskubidearekin, baina baldintzekin, **kontratua iraungitzeko** saria jasotzeko eskubidearekin. Indarkeria egoeraren ondorioz ez bazara lanera joaten, ez da **lanerako hutsegitetzat hartuko** **Kaleratzea baliogabetzat hartuko da**, aipatutako eskubideak gauzatzeagatik gertatzen bada

BALIABIDE EKONOMIKORIK EZ BADUZU



Laguntza ekonomikoak daude baliabide eskasak

dituztenentzat oro har, eta horietara jo dezakezu

Laguntza bereziak daude genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat

- ✘ **Gizarteratzeko Errenta Aktiboa**, genero indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten emakumeentzat eta enplegu eskatzaile gisa izena emana dutenentzat
- ✘ **Laguntza ekonomikoak genero indarkeriaren biktimentzat.** Genero indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten emakumeentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren %75etik gorako errentarik ez badute, uste bada adinagatik zailtasunak dituztela lana lortzeko, prestakuntza orokor edo espezializaturik ez edukitzeagatik eta gizarte egoerengatik. EAEko edozein udalerritako erroldan egon behar da, gutxienez urtebetez

ERASOTZAILEA SALATZEKO ASMOA BADUZU

Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan informazioa emango dizute zure eskubideei, legezko prozedurei eta **gizarte eta arreta baliabideei** buruz. **Doako justizia** jasotzeko eskubidea baduzu, zure eskaeraren izapideak egingo dituzte eta **epaiketarako prestatuko zaituzte**.

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua

Bilbon

900 400 028

Doako telefona

9etatik 14etara

Ibáñez de Bilbao kalea, 3-5

Metro irteera: Abando

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua

Barakaldon

944 001 031

9etatik 14etara

Justizia Jauregia

Bide Onera kalea, z/g

Metro irteera: Barakaldo

Gure herrialdean genero indarkeria **delitu bat da, ofizioz jazar daitekeena**, hau da, egoera **ezagutzen duen edonork** (senide batek, zerbitzu publiko batek, auzoko batek, etab.) **eman diezaioke horren berri**. Epaitegiari edo Fiskaltzari, eta, horrela, abian jarriko dira babesak bermatzeko beharrezkoak diren jarduerak.

Ertzaintzaren Komisarietan 24 orduz hartzen dituzte salaketak, eta Babes Aginduen eskaerarako izapideak egiten dituzte (baina edozein Komisaritan, Biktimari Laguntzeko Zerbitzuetan, Epaitegian edo Fiskaltzan, Gizarte Zerbitzuetan eta Abokatuen Elkargoen Orientazio Juridikorako Zerbitzuetan ere eska dezakezu)

Babes Agindua biktima edozein erasoren aurrean babesten duen tresna da

Epaileak babes agindu bat ematen dizu, era horretara, erasotzailea etorkizunean ez da ez zugana ez zure seme-alabengana hurbilduko eta ez du eraso berririk egingo

Gainera, horrek aukera emango du **egoera erregularrean dauden** eta genero indarkeriaren biktima diren **emakume etorkinei laguntza ekonomikoak eskatzeko** eta **bizilekua senarrarenetik independente eskatzeko (egoera erregularrean zein irregularrean dauden emakume etorkinentzat)**, baldin eta zigortzeko epai bat badago

Babes Aginduak beste **ondorio zibil eta penal batzuk ditu** erasotzailearentzat

EGOERA IRREGULARREAN BAZAUDE ERE, BADITUZU ESKUBIDEAK

- ✘ **Bide judizialek jotzea eta erasotzailea salatzea** erabakitzen baduzu, **erregularizazioa eskatu ahal izango duzu**
- ✘ Familia elkartzailea senarra izan denean, **aldi baterako egoitza baimen independentea eska dezakezu salaketa jarri ondoren eta babes agindu bat edo Fiskaltzaren txosten bat edo zigor epai bat**
- ✘ Eskubidea duzu **Batasuneko egoiliarraren senide txartelaren ordezkatzeko atzerritarren egoitzarena eskatzeko**. Eskaera aurkeztu ahal izango duzu, baldin eta babes agindu bat badago, **baina zigor epai bat baldin badago baino ez da ematen**
- ✘ Biktima irregularrentzako **aldi baterako egoitza baimena** eska dezakezu **arrazoi humanitarioengatik, salaketa jarri eta zigor epai bat lortu ondoren**
- ✘ **Zure herrialdetik genero arrazoiak direla-eta esetsi egingo zaituzten beldur oinarritunak bultzatuta ihes egin** duzun emakumea bazara, eskubidea duzu **errefuxiatu izaera** lortzeko

GOGOETARAKO

Genero indarkeriaren biktima zarela uste baduzu,

EZ ISILIK GELDITU

Ettxeko indarkeria ez da gai pribatu bat, **DELITU BAT DA**

Konta iezaiozu inguruko **norbaiti** (lagunak, senideak, konfiantzazko norbait...) edo **jo ezazu GURE HERRIALDEKO EMAKUMEEN ERAKUNDE EDO GIZARTE ELKARTEREN BATERA**



BIZKAIKO HELBIDE ETA TELEFONO ZENBAKIAK

Bilboko Gizarte-Larrialdietarako Udal Zerbitzuak	944 701 460
Bizkaiako Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saila	944 066 900
Emakume eta Familia Zerbitzua	946 083 574
Bizkaiako Foru Aldundiaren Larrialdietarako Zerbitzua	112
Bizkaiako Foru Aldundiaren Harrera Etxea	944 066
Bilboko Berdintasun Saila	944 204 838
Gernika-Lumoko Udalaren Emakume Zerbitzua	946 254 202
Durangoko Udalaren Emakume Zerbitzua	946 200 000
Ermuako Udalaren Berdintasun Saila	943 176 322
Emakumeentzako Aholku Etxea. Portugaleta	944 729 200
Basauriko Berdintasun Kontseilua	944 444 649
Emakumeentzako Aholku Etxea. Barakaldo	944 782 102
Orientazio Juridikoko Zerbitzua	944 016 712
Genero Indarkeriaren, Etxeko Indarkeriaren eta Sexu Indarkeriaren Biktimeentzako Laguntza Zerbitzua	902 103 908
Guardiako Epaitegia. Bilbo	944 016 481
Guardiako Epaitegia. Barakaldo	944 011 009
Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegia	944 016 502